ABENDUA 2026 BEASAINGO UDAL ALDIZKARIA

#56

BEASAINDIK

Beasaingo Udala

ARGITARATZAILEA: BEASAINGO UDALA • LG SS-00403-2016



Bizitoki berriei ateak ireki

La posibilidad de transformar locales del sector terciario en viviendas



Emakumeen askatasuna eta erresistentzia korrika eginez

02



Circuito de orientación deportiva en Sagastiguti

06



Zuen alkatea

Leire Artola Ugalde
BEASAINGO ALKATEA

Hutsik daudenak bete, isilik daudenak entzun

Azaroaren ondarrean, gure kaleetan eta leihoetan nabari da puntu lilen oihartzuna. Joan den azaroaren 25ean, Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunean, beasaindarrok argi erakutsi genuen indarkeria matxistaren aurrean ez dagoela isiltasunerako tarterik. Baina konpromiso hori ezin da egun bakarrera mugatu; gure eskualdean artatutako 81 kasuetatik 22 beasaindarrak izan zirela gogoratzeak egunero erne egotera behartzen gaitu. Horren erakusgarri izan zen azaroaren 12an batzar aretoan Las que corren dokumentalarekin eta Guatemalako protagonistekin bizitako solasaldia: kirola eta elkartasuna tresna hartuta, emakumeen askatasunaren aldeko borrokak mugarik ez duela ikasi genuen.

Etxe barruan zein kalean seguru eta aske bizitzeak lotura zuzena du, halaber, norberaren bizi-proiektua garatzeko espazio propioa izatearekin. Jakitun gara etxebizitzaren erronkak kezka handia sortzen duela gaur egun herritarren artean. Horregatik, Udalak hirigintza-plangintza orekatu baten alde lanean jarraitzen du, eta beasaindarrei gogorarazi nahi diegu jarduerarik gabeko merkataritza-aretoak etxebizitza bihurtzeko araudia indarrean dagoela. Herriko merkataritza-ardatz nagusiak babestuz baina hutsik dauden espazioei bizia emanez, aukera erreal bat eskaintzen diegu herrian bertan geratu eta bizitzeko.

Atzean utzi dugun hilabeteak utzitako irakaspenak oinarri hartuta, erronka berriei ilusioz eta erantzukizunez heltzeko garaia da. Guztion artean, elkarrekiko errespetutik eta elkarlanetik, Beasain abegikor eta bidezkoagoa eraikitzen jarraituko dugu.

Abrir espacios, romper silencios

Recién despedido noviembre, el rastro de los puntos lila en nuestras ventanas nos recuerda el compromiso demostrado el pasado 25N frente a la violencia machista. Una implicación que debe ser diaria ante una realidad cercana —con 22 casos atendidos en Beasain el último año— y que tuvo su reflejo en el inspirador coloquio del 12 de noviembre junto a las protagonistas guatemaltecas del documental *Las que corren.*

Vivir en libertad exige también disponer de un hogar donde desarrollar un proyecto de vida. Ante la preocupación ciudadana por la vivienda, recordamos la vigencia de la normativa para convertir locales sin actividad en viviendas, una alternativa que protege nuestro comercio local mientras abre nuevas oportunidades de aprovechamiento para vivir en Beasain. Sigamos construyendo juntos, desde la responsabilidad compartida, un municipio más justo.





Correr como camino hacia la libertad y la resistencia

En el marco de las reivindicaciones del 25 de noviembre, el Ayuntamiento de Beasain proyectó el 12 de noviembre el documental "Las que corren" junto a un coloquio con tres de sus protagonistas guatemaltecas. La iniciativa conecta el mensaje municipal de implicación activa contra la violencia machista con la lucha de las mujeres indígenas por sus derechos a través del deporte.

El acto refuerza el compromiso con la cooperación: en 2026 el consistorio aportará 100.000 euros a Euskal Fondoa para proyectos en Cuba y Guatemala. Asimismo, ante los 22 casos de violencia machista atendidos en Beasain en 2025, el Ayuntamiento repartió puntos lila casa por casa para visibilizar el apoyo comunitario.





Emakumeen askatasuna eta erresistentzia korrika eginez

Azaroaren 25eko aldarrikapenen baitan, Beasaingo Udalak Las que corren / Korrikalariak dokumentala proiektatu eta solasaldia antolatu zuen, Guatemalako Alta Verapaz-eko emakume indigenek kirolaren bidez egiten duten borroka ezagutarazteko.

Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren (Azaroak 25) aldarrikapenekin bat eginez, Beasaingo Udalak Las que corren dokumentala proiektatu zuen azaroaren 12an udaletxeko batzar aretoan, eta ondoren solasaldia egin zuen filmeko hiru protagonistekin. Ekitaldiak indarkeria matxistaren aurrean herritarren inplikazio aktiboa eskatzen duen aurtengo udal-mezuarekin bat egiten du, beste errealitate batzuk herritarrengana hurbilduz.

Kirola, askatasun eta borroka tresna

Euskal Fondoak eta Ikaika Mediak ekoitzitako ikus-entzunezkoak Guatemalako emakume indigenen bizipenak jartzen ditu erdigunean. Dokumentalak agerian uzten du kirola erresistentzia feministarako eta komunitate berdinzaleagoak eraikitzeko tresna eraginkorra dela. Proiekzioaren ostean, Dilia Co Coy Alta Verapazeko gobernadoreak, María Xol Emakume Indigenaren Defendatzaileak eta Inocenta Macz INCIDE fundazioko koordinatzaileak bertatik bertara partekatu zituzten beren borrokak beasaindarrekin.

Lankidetza eta udal konpromisoa

Ekimen honek lotura zuzena du Beasaingo Udalak 2014tik Euskal Fondoarekin duen elkarlanarekin; hain zuzen, urte hartan senidetu ziren Guatemalako Ak'Wank lasterketa eta Behobia-Donostia. Era berean, aurtengo Azaroaren 25eko adierazpenak gogorarazten du indarkeria matxistarik gabeko gizartea lortzeko ezinbestekoa dela isiltasuna haustea eta konpromiso partekatua hartzea. Horren harira, Udalak puntu lilak banatuko ditu etxez etxe, auzo, leiho eta saltokietan jartzeko eta komunitatearen babesa ikusarazteko.

> "Indarkeria matxistaren aurrean ez dago neutraltasun egoera posiblerik; ez begiratzeak, ez erreakzionatzeak edo isilik geratzeak ere baditu ondorioak"

Datu nagusiak

Lankidetza-ekarpena (2026): Beasaingo Udalak 100.000 euro bideratuko ditu Euskal Fondora; horietatik 3.146,46 euro bazkide-kuotarako dira eta gainerakoa Kuba eta Guatemalako hiru proiektu finantzatzeko.

Indarkeria matxistaren datuak (2025): Eskualdeko erakundeetan 81 kasu artatu ziren iaz, eta horietatik 22 beasaindarrak izan ziren.

Ibilbidea: Euskal Fondoak hiru hamarkada baino gehiago daramatza Guatemalan lanean, eta Beasain 2014an batu zen erakundera.



Etxebizitza eskuratzeko aukera aretoen berregokitzearekin

Ate berriak irekitzen

Gutxienez 40 m²-ko azalera, hiru urteko jarduerarik gabeko epea eta bizigarritasun zein irisgarritasun bermeak dira Beasainen aretoen erabilera-aldaketa gauzatzeko oinarrizko baldintzak.

Etxebizitza eskuratzeko bide berriak zabaltzeko helburuarekin, gogorarazi behar da badagoela indarrean hirugarren sektoreko aretoak bizitoki bihurtzeko aukera. Araudiak gutxieneko neurriak, eraikinaren ataritik sartzeko irisgarritasuna eta etxebizitza tasatuaren araubidea betetzea eskatzen du, betiere merkataritza-ardatz nagusiak babestuz.

Hirigunearen oreka mapan

2007az geroztik indarrean dagoen araudiak —aldaketa txikiak izan dituen arren, 2025eko otsailean eguneratua (GAO 2025/02/20)— herriko merkataritza-bizitza eta bizitegi-beharra uztartzea du xede. Horretarako, hiriguneko mapan koloreen bidez bereizten dira eremuak:

- B zonaldean, gorriz, behe solairuetan eta solairuarteetan dauden aretoak dira etxebizitza bihurtu daitezkenak.
- A zonaldea, marroiez. Merkataritza lehenesten den zazpi kale nagusietan behe solairuak dendetarako gordetzen dira, eta soilik solairuarteak eraldatu daitezke: Igartza Oleta kalea, Nafarroa Etorbidea, Kale Nagusia, J.M. Iturrioz kalea, Ezkiaga Hiribidea, San Inazio kalea eta Oriamendi kalea.

> "Ordenantzak herriko merkataritza-ardatzak babesten ditu, kale nagusietako behe solairuak jarduera ekonomikorako gordez eta solairuarteetan bizitokiak ahalbidetuz."

Bete beharreko baldintzak

Aurretiko egoera eta espazioa

- Jarduerarik gabeko denbora: Gutxienez 3 urte igaro behar dira aretoan azken jarduera ekonomikoa eten zenetik.
- Gutxieneko azalera: Sortuko den etxebizitza berriak gutxienez 40 metro koadro erabilgarri izan behar ditu.

Sarbidea eta bizigarritasuna

- Sarbide komun eta irisgarria: Etxebizitzarako sarrera eraikinaren barruko elementu komunetatik egin behar da (ataria edo eskailerak), eta irisgarritasun-irizpideak bete behar ditu.
- Araudi teknikoa: Indarrean dauden bizigarritasun-baldintzak (80/2022 Dekretua) bete behar ditu, eta udal baimenak lortzeko dagokion proiektu teknikoa aurkeztu behar da.

Kalifikazioa eta salmenta

Etxebizitza Tasatua: Erabilera-aldaketatik sortutako etxebizitzek Araubide Autonomikoko Etxebizitza Tasatuaren kalifikazioa izango dute; beraz, saltzekotan, EAEko araudiak ezarritako gehienezko prezioak errespetatu beharko dira.

- Etxebiden izena emanda: Jabeak Etxebideko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena emanda dauden pertsonei soilik saldu edo alokatu ahal izango die (zuzeneko familiartekoen kasuan izan ezik).







Abriendo puertas en Beasain

Rehabilitar locales como viviendas

El Ayuntamiento recuerda a la ciudadanía la posibilidad de transformar locales del sector terciario en viviendas, una alternativa vigente desde 2007 y actualizada en febrero de 2025 que exige un mínimo de 40 m2 útiles, tres años sin actividad previa y acceso accesible desde el portal.

Para proteger el comercio, en siete vías principales (Igartza Oleta, Nafarroa Etorbidea, Kale Nagusia, J.M. Iturrioz, Ezkiaga, San Inazio y Oriamendi) solo se permiten en entreplantas, mientras que en el resto de zonas habilitadas del mapa urbano también se autorizan en plantas bajas. Los inmuebles resultantes deben cumplir el decreto de habitabilidad (80/2022), y adquirirán la calificación de Vivienda Tasada con precios limitados y deben destinarse a personas inscritas en Etxebide, salvo familiares directos.



GAKO NAGUSIAK

Ordenantza
2007tik (eguneratzea: GAO 2025/02/20).

Etenaldia
aretoa 3 urte jarduerarik gabe

Azalera
Gutxienez 40 m² erabilgarri.

Salmenta araua
Etxebizitza Tasatua eta Etxebideko eskatzaileak.

Arriarango historia Beasaingo Paperak bilduman

Azaroaren 4an aurkeztu zen Arriarango Intxaurpe elkartean Beasaingo Paperak bildumako 34. alea. Iker Sancho Insaustik idatzitako lanak auzoaren 700 urtetik gorako historia biltzen du, 1305eko lehen aipamenetatik gaur egunera arte, artxiboetako agiriak eta auzotarren lekukotzak uztartuz. Jauntxoen, elizaren eta baserritarren arteko bizikidetza eta auzoaren nortasuna ditu ardatz liburuak. Alea salgai dago herriko liburu-dendetan eta Udaleko Kultura sailean.

Beasaingo Paperak recoge la historia de Arriaran

El 4 de noviembre se presentó en la sociedad Intxaurpe del barrio de Arriaran, el número 34 de *Beasaingo Paperak*, obra de Iker Sancho Insausti. El libro repasa más de 700 años de historia del valle combinando archivos y testimonios vecinales. Ya está a la venta en las librerías locales y en el departamento de Cultura.







Kirol orientazioko ibilbide iraunkor berria Sagastigutin

Beasaingo Udalak kirol orientazioko ibilbide iraunkor berria jarri du martxan Sagastigutiko parkean, Aizkorri Mendizale Elkarteak bultzatuta eta Gipuzkoako Orientazio Taldearen laguntza teknikoarekin. Adin guztietako herritarrei kirola, natura eta aisialdia uztartzeko aukera eskaintzen die, urte osoan zehar, doan eta norberaren erritmora.

Mapak bi elkarteen webguneetan eskura daitezke dagoeneko. Ibilbidearen estreinako saioa joan den azaroaren 14an egin zen, Jabetze Eskolaren barruan emakumeentzat antolatutako jarduerarekin.

Nuevo circuito permanente de orientación deportiva en Sagastiguti

El Ayuntamiento de Beasain, junto a Aizkorri Mendizale Elkartea y Gipuzkoako Orientazio Taldea, ha estrenado un circuito permanente de orientación en el parque de Sagastiguti. Abierto todo el año y apto para todas las edades, sus mapas ya están disponibles en las webs de ambos colectivos. El recorrido se inauguró el pasado 14 de noviembre con una sesión femenina de la escuela de empoderamiento.



Ezkiagako txakur parkea eremu lauago eta erosoago batera lekuz aldatu da

Erabiltzaileen eskaerei eta auzotarren adostasunari erantzunez, Beasaingo Udalak Ezkiagako parkeko txakur-eremua lekuz aldatu du gune lauago, eta erosoago batera, aurreko kokapenak zituen zailtasunak gaindituz. Udalerriak dituen lau txakur parkeetako bat da hau —Urbieta atzeko, Zaldizurretako eta Igartzakoekin batera—. Era berean, bizikidetza bermatzeko, Udalak jabeei gogorarazi die txakurrak lotuta eramatea eta gorotzak jasotzea derrigorrezkoa dela gune hauetatik kanpo.

El parque canino de Ezkiaga se traslada a una zona más llana y confortable

Atendiendo a las peticiones vecinales, el Ayuntamiento ha reubicado el área canina de Ezkiaga a un espacio más llano y cómodo dentro del mismo parque, sumándose a las otras tres zonas habilitadas en el municipio. Asimismo, recuerda la obligación de llevar a los perros atados y recoger sus excrementos fuera de estos recintos para garantizar la convivencia.

Udalak klimatizazio-sistemak jarri ditu Seaska haurreskolan eta etxebizitza tutelatuetan

Beroaldien eragina arintzeko eta egoera zaurgarrienean dauden kolektiboak lehenesteko asmoz, Beasaingo Udalak klimatizazio-sistemak instalatu ditu Seaska haurreskolan eta etxebizitza tutelatuetan. Jarduera honek 200.000 euroko inbertsioa izan du, eta aurrerantzean egokitzapen horiek gainerako udal-eraikin publikoetara zabaltzen joango da Udala, pixkanaka.

El Ayuntamiento instala sistemas de climatización en la haurreskola Seaska y los pisos tutelados

Para mitigar el impacto de las olas de calor priorizando a los colectivos más vulnerables, el Ayuntamiento de Beasain ha invertido 200.000 euros en climatizar la haurreskola Seaska y los pisos tutelados. Estas mejoras se extenderán progresivamente al resto de edificios municipales.



"GARI. 30 URTE" BIRA

MUSIKA ZUZENEAN BONBERIAN

ABENDUAK 11 ✦ 19:00etan ✦ Bonberie kulturgunean

